

## 12/2019 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2019KO IRAILAREN 30EAN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Saioa Tolosa Zubelzu (EH Bildu taldea)

Amaia Urkola Arozena (EH Bildu taldea)

Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)

Esther Iztueta Zelaia (EH Bildu taldea)

Jokin Tolosa Zabala (EH Bildu taldea)

Rafael Uribarren Axpe (EAJ-PNV taldea)

Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ-PNV taldea)

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ-PNV taldea)

Jaimen Peón Ormazabal (EAJ-PNV taldea)

Nuria Carbonell Miranda (EAJ-PNV taldea)

##### IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:

Itziar Azurza-Sorrondegui

Anoetako udaletxean, 2019ko IRAILAREN 30ean arratsaldeko zazpitan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa alkatearen lehendakaritzapean, eta Itziar Azurza Sorrondegui andrea aritu da idazkari lanetan.

#### 1.- 2019KO UZTAILAREN 24KO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

EAJ-PNV taldearen bozeramaile den Rafael Uribarren jaunak akta ez dutela gainerako dokumentazioarekin batera jaso adierazi du. Idazkariak erantzun duenez, uztailean igorri zen, baina berriz ere bidaliko zaiela.

Alkateak aktaren hirugarren puntuko bigarren atala egokitu behar dela aipatu du, izan ere, informazio batzorde edo batzorde informatibo guztiak ez baitira beti hilean behin izango. Idazkariak argitu du, teknikariei adierazi diela batzordekide zinegotziei maiztasunaren eta ordutegian berri zuzenean ematea emailaz.

Aurreko ohar horiek kontuan hartuta, 2019ko uztailaren 24an ospaturiko bilkuraren akta aho batez onartu da.

#### 2.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2019KO APIRILAREN 16TIK IRAILAREN 12-A BITARTE, 173 ZENBAKITIK 319 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

2019ko apirilaren 16tik irailaren 12a bitartean izaniko ebazpen berri eman dira

eta udalbatza jakinaren gainean geratu da .

### **3.- ANOETAKO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEAN, ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROETAN AURKEZTEKO HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEKO PROPOSAMENA.**

Idazkariak azaldu duenez, Anoetako Udalbatzak 2011ko apirilaren 27an onartu zuen, Anoetako Udala eta Eusko Jaurlaritza arteko lankidetzaz hitzarmena, udal erregistroan aurkeztutako idatziak Eusko Jaurlaritzako Administrazioa bidaltzeko. Hitzarmenaren indarraldia 2019ko ekainaren 15ean amaitu da.

Bulego orokorrean zerbitzu hau eskaintzeak lan zama areagotu egin du. Eta Anoetako udalaren tamaina eta giza baliabideak aintzat izanik, desoreka nabari da. Gainera, gehiagotan edo maizago erabili ohi dute zerbitzu hau, Anoetarrak ez diren pertsonak Anoetarrek baino. Bestalde, Tolosako Udalak zerbitzu hau ez eskaintzeak erakarri egiten du jendea, dohakoa baita eta Correos bidez baino seguruagoa eta merkeagoa baita.

Kontuan izan behar da, baita ere, 39/2015 eta 40/2015 legeen ondorioz, erregistro elektronikoa abian jarriko dela laster, eta beraz, edozein erakunde publikok izango duela obligazioa edozein herritarren idatziak onartu eta dagokion Administrazioari bidaltzeko baliabide telematikoak eta plataforma teknologikoak erabiliz, Administrazio guztien arteko harreman elektronikoa normalizatzea aurrikusita baitago laster .

### **AIPATUTAKO PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.**

### **4.- KLIMA ALDAKETEN AURKA KONPROMISO ZEHATZAK HARTZEKO BILDU TALDEAK AURKEZTURIKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Irailaren 26an bidalitako gai zerrendan EH-BILDU taldeak irailaren 20an aurkeztutako mozio testua klima aldatetaren inguruan sartu da. Irailaren 27an EAJ-PNV taldeak beste mozio bat aurkeztu du gai berberaren gain, baina dagoeneko deialdia egina zegoenez, ez zen gai zerrenda ofizialean sartzeko astirik izan.

EAJ-PNV taldeak aurkeztutako idatzia ontzat eman daitekeen eztabaidatu da. Idazkariak erantzun duenez, Udalbatzaren deialdia eta dokumentazio igortzea bilera eguna baina bi lan egun lehenago egin behar da, legez. Alegia, normalean, aurreko asteako asteazkenean. Idatzi hau irailaren 27an, Udalbatzaren aurretiazko lan egunean aurkeztu da. Eta horregatik, printzipioz gai zerrendan jasotzerik ez dagoen arren, bada aukera bat Udalbatza kideek aho batez gai zerrendan barneratzea adostuz gero.

Mozioen edukiari dagokionez 10 puntu dituzte eta antzekotasun handia dute, bizpahiru puntutan izan ezik. Bi taldeko bozeramaileek testu bateratu bat lantzeko aukera izan arren adierazpen instituzional orokorra prestatzeko, ez dira akordio batera iritsi. Beraz, mozioak banaka irakurri eta bozkatu dira, ondoren jaso moduan.

Lehenik, EH BILDUko ordezkariak - Alkateak- irakurri egin du bere mozioa. Bozketa horrelakoa izan da:

- Alde: 6
- Aurka: 5

Ondorioz, EH BILDU ordezkariak aurkeztutako mozioa gehiengo sinplez onartu du Udalbatzak ( ikusi lehen gehigarria) .

Bigarrenik, EAJ-PNV taldeak irailaren 27an aurkeztutako mozioa, gai zerrendan sartzea aho batez onartu dute zinegotzi guztiek. Eta azkenik, EAJ-PNV taldearen bozeramaileak testua irakurri egin du. Segidan, bozketa gauzatu da, emaitza hauekin:

- Alde: 5
- Aurka: 6

Ondorioz, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako bigarren mozio hau ez du Udalbatzak onartu.

## **5.- DONOSTIAKO MERKATARITZA ARLOKO 1 ZENBAKIKO EPAITEGIAK EMANIKO AUTOAREN BERRI EMATEA.**

Sarrera gisa, Udaleko Idazkari- kontuhartzaileak aipatu du Donostiako merkataritza arloko 1. Epaitegiak 140/2019 zenbakidun Autoa eman zuela 2019ko irailaren 11an. Prozedura mota, 138/2018-D konkurtso laburtua eta zorduna Anoeta Lantzen S.A. izanik.

Bertan, zati erabakiorretan islatu denez, zera erabaki da:

\* lehen puntuan, “likidazio fasea amaitu denez, konkurtso prozedura bukatutzat eman eta jarduera guztien artxiboa“

\*hirugarren puntuan, “zorduna den pertsona juridikoaren extinzioa edo iraungitzea eta Gipuzkoako merkatal erregistroko inskripzio orria istea”.

Ondoren, Pello Estanga Alkate jaunak berria pozgarria dela esan du, berarentzat amets gaiztoa izan baita Anoeta Lantzen S.A.rekin bizitu izan duen egoera, bera Alkate izendatu aurretik, alegia, 2011 urte aurretik, zetorren egoera jasan behar izan baitu.

Jarraian, Rafael Uribarren jaunak, EAJ-PNV taldearen bozeramaileak, laburpen historiko bat egin du. Besteak beste, gogorarazi du Anoeta Lantzen S.A. eratzearen arrazoa Lasarbe izeneko hirigintza eremua garatzean zetzala eta horren kudeaketa lehiaketa bidez ESARBE enpresak irabazi zuela. Kontratua izenpetzerakoan finkatu zela, bi aldetakoren batek kontratua hautsiz gero 300.000.-euroko indemnizazioa ordaindu beharko zuela eta Periko Peñagarikano Alkateak erabaki zuela kontratua bertan behera uztea, horrek atzetik ekarri zituen ondorioekin.

Aurrerago, Estanga Alkate jaunak gertakariak ez zirela zehatz mehatz horrela izan gehitu du, berak zuzenean epaitegietan entzundako adierazpenetan oinarrituz. Bereziki, argitu nahi izan du lurjabeek maiz adierazi ziotela, ez zirela gustora joaten herritik kanpora zegoen bulego batera baina hala ere prest agertu zirela ESARBERi 40.000.-euro ordaintzera egindako lanengatik. Azkenik, azaldu du Udalak ez zuela ordaintzeko asmorik eta horregatik, aholkulari batzuk iradoki ziotela, bere ondare pertsonal bidez zorrei aurre egin beharra sahiestu nahi izanez gero, Anoeta Lantzen S.A.-ren “konkurtso edo lehiaketa deklarazioa” abiatu eta eskatu beharra zegoela.

Uribarren zinegotzi jaunaren ustez, Udalak ez du kudeaketa ona burutu gai

honetan. Izan ere, ESARBE enpresak, udalaren erabakien eta 2008 urteko krisialdiaren ondorioz, bertako pertsonal enplegatuak (lan fina egiten zutenak bere ikuspegitik) kaleratu eta indemnizatu behar izan zituen. Eta areago oraindik, mingarriak iruditu zaizkio garai hartan Fidel Azpiroz jaun zinegotzi ohiak entzun behar izan zituen irainak, asmo onez eta legearen barruan jardun zuela kontuan hartuta.

Alkateak baimenduta, ikusle den pertsona batek iruzkin bat egin du Anoeta Lantzen S.A.-ren inguruan.

Honen ondoren, ezbaia izan da Pleno aretoan dauden ikusle-entzuleek zein eratan parte har dezaketen Udalbatzako bilkuretan. Alkateak adierazi duenez, galde erreguetan parte har dezakete. Idazkariak gehitu du, Alkateak eman behar duela hitza eta baimena aldez aurretik beti ere eta herritarra ezin dela udal ordezkari politikoen arteko elkarrizketetan espontaneoki eta nahi duen unean sartu gai zerrendako edozein gaietan.

## **6.- GALDE-ERREGUAK**

EAJ-PNV taldeko udal ordezkariak Udalbatzako aktak eta dokumentazioa, eta bestelako agiriak ere, pdf formatuan emailera bidaltzerik baden galdetu dute.

Idazkari-kontuhartzaileak erantzun duenez, 39/2015 eta 40/2015 legeek, duela hiru indarrean sartuz geroztik, lehenetsi egin dutela udal barneko harreman telematikoak, baita zinegotziekin ere. EH-BILDUko udal ordezkariari adierazi die, defektuz, beraiek nahi izanez gero, emailez eta pdf formatuan igorriko zaizkiela dokumentuak. Eta paperean nahi duenak, espresuki eska dezala udal bulegoetan.

Ados agertu dira guztiak proposamen honekin.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortziak direnean. Hau guztia, neuk, idazkari-kontuhartzaileak, egiaztatu dut.